

# MEMORIA LABURPENA 2021




© Ignacio Marín / Munduko Medikuek Euskadi

**MUNDUKO MEDIKUAK EUSKADI**  
GAIXOTASUN GUZTIEI EGITEN DIEGU AURRE, INJUSTIZIARI ERE BAI



# Nor gara

Munduko Medikuek nazioarteko elkarte humanitario eta boluntario bat da. Guztiok osasunerako dugun eskubidea gauzatu dadin lan egiten du, eta bereziki jarduten du hala izan dadin pobrezia egoeran, genero desberdintasunean eta gizarte bazterketa egoeran bizi direnen edo giza krisien biktima direnen artean. Eta hori lortu nahi du, osasun arretaren, salaketaren, testigantzen eta ekintza politiko eta sozialaren bidez.



**Munduko Medikuek** elkartearen egoitza tokian tokiko **kolektibo ahulekin** ere jarduten da, bereziki osasun sistema publikoa erabiltzeko zailtasunak dituztenekin. Boluntariotzaren konpromisoaren bidez eta beste gizarte mugimenduekin batera, kontzientzia kritikoak sortzeko prozesuak bultzatzen ditugu, gizarte aldaketarekin konprometitu den herritar multzo globalari begira.

**GARDENTASUNA**  
Bazkideek zuzendutako elkarte gara. Bazkide horiek borondatez parte hartzen dute, elkarteari ekonomikoki eusten laguntzen diote, eta erakundearen ekintzei buruzko erabaki estrategikoak hartzen dituzte.

## ARRETA ETA SALAKETA

Eskubideak urratu zaizkien pertsonen arreta emateaz gain, bidegabekeriak eragiten dituzten arazoak salatzen ditugu, eta gobernuari presio egiteko ekintzak sustatzen ditugu, egoera horiek zuzentzeko.

## MUNDUKO MEDIKUAK HONAKO HAUEK OSATZEN DUGU

64	BAZKIDE (38 emakume eta 26 gizon)
138	BOLUNTARIO (95 emakume eta 43 gizon)
11	PERTSONA KONTRATUPEAN (8 emakume eta 3 gizon)
1.288	EMAILE FIDELIZATU
57	ERAKUNDE LAGUNTZAILE (30 publiko eta 27 pribatu)

## Munduko Medikuen Nazioarteko Sareak

17 ordezkari dituzte guztira, Alemanian, Argentinan, Belgikan, Kanadan, Espainian, Estatu Batuetan, Frantzia, Grezian, Italian, Japonian, Luxenburgon, Holandan, Portugalen, Erresuma Batuan, Suedian, Suitzan eta Turkian. Helburu komun bat dute horiek guztiak: talde ahulenei osasun arreta ematea eta bidegabekeriak kausak eta horien erantzuleak salatzea.

**Garapenerako lankidetzaren** eremuan lan egiten dugu, epe luzeko proiektuen bitartez, eta herrialde bakoitzeko osasun egituraren txertatzen ditugu proiektu horiek. **Ekintza Humanitarioari** dagokionez, gerrak, gaixotasunek edo hondamendi naturalek kaltetutako lekuetan bertan aritzen gara, premiaz.

# Urtearen azterketa

## TESTUINGURU HUMANITARIOA

**Aurtengo urtea ere Covid-19aren pandemiak baldintzatu du. Azken urteetako osasun krisiak bete-betean eragin du pertsonen bizitzan, eta eragin handia izan du haien egoera ekonomiko, sozial eta sanitarioetan.**

Munduko Medikuek erakundearen pertsona guztiak osasun eskubidea gauzatzeko lanean jarraitzen dugu. Urte osoan, egoera administratibo irregularrean dauden eta osasun sistematik kanpo dauden pertsonak artatzen jarraitu dugu, oro har. 7/2018 Errege Dekretu Legegilea garatuko duen araudi bat egitearen premia azpimarratzen jarraitu dugu, eta itxaropena dugu erakundearen adierazpenek aplikazio eraginkorra izatea osasun arretaren unibertsaltasunean.

Esku Harte Komunitarioaren, Gizarteratzearen eta Bizikidetzaren alorreko programen bidez lantzen dugu Migrazioen arloa. Gure lana honako ildo hauen garapeneraren eskutik etorri da: harrera, bizikidetzaren, generoaren, berdintasuna, diskriminazioaren aurkako borroka eta partaidetza.

Osasunerako eskubidearen alde egiten duen herritartasun aktiboa osatzen lagundu dugu, ekintza ildo hauei jarraituz: Giza Eskubideei dagokionez herritartasun kritikoaren sortzea, bereziki osasunerako eskubideari dagokionez, eta aktibismoa eta herritarren mobilizazioa sustatzea, gizarte aldaketa errazteko. Aldaketa sozial hori sustatzen du Euskadiko Munduko Medikuek erakundeak, hain zuzen ere, gizarte mobilizazioaren bidez, eta honako ildo nagusi hauek hartzen ditu: elkarte garapena, sentsibilizazioa eta gizarte eraldatzeko hezkuntza.

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza programen bidez pentsamendu kritikoa indartu nahi dugu, gizarte eraldaketarekin konprometitu eta arduratsua izango den gizarte zibila osatzeko helburuarekin, eta, horretarako, justiziari, berdintasunari eta dibertsitateari dagokionez pertsona ahaldunduak eta eskubideen urraketai dagokionez kontzienteak izango diren pertsonak sustatzen ditugu.

Diskriminazioaren, xenofobiaren eta gorrotoaren diskurtsoen aurkako borroka funtsezkoa da gizarte eredu integratzailea osatzeko. Halaber, nerabazeroan eta gaztaroan indarkeria matxisten aurrean tratatu onak lantzea ere funtsezkoa da. Alde horretatik, aurten maskulinitateen lan espezifikoak sendotu dugu gure proiektuetan.

Halaber, Afrikari buruzko hezkuntza materialak jarri ditugu Euskadiko hezkuntza komunitatearen eskura, kontinente haren berezitasunak berri eta positibo emateko helburuarekin, hango aniztasunaren eta aberastasunaren ezagutzan oinarrituta; orobat, gaur egungo munduaren interdependentsiari eta errealitateen arteko loturari buruzko ikuspegia eman dugu.

Sareko lanaren, eraldaketa sozialerako hezkuntza prozesuaren, osasun komunitarioaren eta intzidentziaren bidez, eskubideen ikuspegiaren oinarritutako eredu aldaketa bultzatu nahi dugu Munduko Medikuek erakundearen.

Sara, Franklin, Itxaso eta Josu. Munduko Medikuek erakundearen Zuzendaritza Batzordea.





# Gizarte mobilizazioa

**Munduko Medikuen (MdM) ildo estrategikoen artean, osasunerako eskubidearen aldeko herritartasun aktiboa erakitzen laguntzea nabarmetzen da, eta, horretarako, ekintza ildo nagusi hauei jarraitzen zaie: Giza Eskubideekiko kritikoa den herritartasun baten sorrera sustatzea, bereziki osasunerako eskubidea, eta orobat sustatzea aktibismoa eta herritarren mobilizazioa, gizartearen aldaketa bultzatzeko.**

Gizarte aldaketa hori mobilizazio sozialaren bidez sustatzen du Euskadiko Munduko Medikuek erakundeak, eta honako ildo nagusi hauek hartzen ditu: elkarte garapena, sentsibilizazioa eta gizartearen eraldatzeko hezkuntza.

## ELKARTE GARAPENA

Euskadiko Munduko Medikuek erakundearen ustez, **boluntariotza** funtsezkoa da gizartearen eraldaketa lortzeko beharrezkoa den gizartearen eta herritarren partaidetzarako, betiere kulturarteko ikuspegia, genero ikuspegia eta sexu aniztasunaren ikuspegia oinarri izango dituen osasunerako eskubideari begira. Klasearteko, kulturarteko eta belaunaldien arteko boluntarioen kultura sustatzen du, bai eta elkarte sare dinamikoa ere, euskal gizartearen partaidetza

aktiboa lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak eskainiz.

Erakundearentzat ezinbestekoa da boluntarioak eta elkarteak integratzea, bai eta lanerako eta erabakiak hartzeko maila eta espazio guztietan parte hartzen dutela bermatzea ere.

Boluntarioen partaidetza ez zen COVID-19aren pandemiagatik eten, eta unean uneko beharretara eta mugetara egokitzen jakin zuen.



Bideo bat egin genuen, COVIDaren garaian erronkei heltzeko eta osasun-eskubidearen aldeko borrokan gure ondoan jarraitzeko agertu duten konpromisoa eta inplikazioa eskertzeko.

[Ikusi bideoa.](#)

Abenduaren 2an boluntarioen topaketa egin genuen Euskadiko Munduko Medikuen egoitzan, Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna zela eta. Bertan, berriro elkartu, eta aurrez aurreko espazioak partekatu genituen, gure ustez beharrezkoak eta garrantzitsuak baitira gizarte eraldaketaren alde elkarrekin aurrera egiteko.

## SENSIBILIZAZIOA

**Gure sentsibilizazio ekintzak eta jarduerak askotariko gaiei buruzkoak dira, eta Giza Eskubideekiko herritar kritikoak sortzea dute helburu nagusia, bereziki osasunerako eskubideekiko eta sexu eta ugalketa eskubideekiko kritikoak.**


2021ean aipatzekoa da etengabe jardun dugula lanean emakumeen aurkako indarkeriaren funtsezko adierazpenen sentsibilizazioan eta prebentzioan, hala nola ho nako adierazpen hauen inguruan:

### Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EMG):

prestakuntza eman diegu arlo soziosanitarioko profesionaleri, baita tailerrak ere gizon eta emakume migratzaileei, bereziki EMGaren prebalentzia handia duten herrialdeetako, eta sentsibilizazio jarduerak egin ditugu, Nire Borroka Gure Borroka argazki erakusketaren bitartez.

**Pertsonen salerosketa**, batez ere sexu esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketa; tailer presentzialak eta on line bidezkoak egin ditugu, gizarte eta osasun arloko profesionalentzat eta herritarrentzat oro har.

Gure helburuak lortzeko, funtsezkoa da **sareko lana** egiten jarraitzea, maila guztietan: tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa. Nabarmentzekoa da, bestalde, gure partaidetza EMGrik eta beste indarkeria matxistari gabeko Estatuko Sarean, END FGM Europako Sarean, Salerosketaren aurkako Espainiako Sarean eta Emakunderen sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatuen salerosketaren aurkako Koordinazio Mahaian, baita beste sare hauetan izandako partaidetza ere: Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea, Harresien Aurkako Euskadiko Euskal Sarea, Harresiak GKE-en koordinakundean eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.

 [1] Boluntariotzaren Nazioarteko Eguneko topaketa. [2] M8ko Manifestazioa. Emakumearen Nazioarteko Eguna. [3] EMGaren aurrean Zero Tolerantziaren Munduko eguna dela-eta egindako tailerra. [4 eta 5] Nire Borroka Gure Borroka argazki erakusketa.



[1]



[2]



[3]



[4]



[5]



# Gizartearen eraldaketarako Hezkuntza

**Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza prozesu bat da, pentsamendu kritikoa indartzera bideratua, eta helburu nagusi batekin: gizarte eraldaketarekin konprometitua eta arduratsua izango den gizarte zibila osatzea. Horretarako, justiziari, berdintasunari eta dibertsitateari dagokionez pertsona ahaldunduak eta eskubideen urraketari dagokionez kontzienteak sustatzen ditugu.**

Hainbat dimentsiotatik heltzen diogu Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntzari: hezkuntza eremu formalean, informalean

eta ez-formalean, sentsibilizazioa eta eragin politikoa; etengabeko ikaskuntza sustatuz, oinarri sozialaren eta eskubideen titularren gaitasunak bultzatzeko, eskubideen ikuspegitik gizartea eraldatzen laguntzen duten subjektu protagonistak diren aldetik. Eta 2021ean hainbat proiekturen bidez inplementatu genuen hori guztia:


**GENDER** proiektuaren bigarren fasea, nerabezaroan eta gaztaroan indarkeria matxisten aurrean tratatu onak lantzeko hezkuntza proposamena, aurrean Bilboko


San Adrian BHIIn gauzatu dena. Ikasleen ahaldundutza, gizartearen duten partaidetza eta eragin politikoa sustatu nahi ditu, genero desberdintasunen, estereotipoen eta rolen aurrean, bereziki sare sozialen erabilera azpimarratuz eta berdintasunean oinarritutako eredu sozioafektiboak elikatuz, tokiko indarkeria matxistari eta globalari aurre hartzeko helburuarekin.

**MUGITZEN ARI DEN MUNDUA, ESKUBIDE KONTUA.** Proiektu honek migrazio prozesuak eragiten dituzten kausetara zabaldu nahi izan du arreta, generoaren eta giza eskubideen ikuspegia txertatuz aniztasunaren, migrazioaren eta babesaren tratamenduan. Horretarako, etorkinei eta errefuxiatuei buruzko estereotipoak eta aurreiritziei aurre egiteko tresnak eman dizkiegu Deustuko Unibertsitateko eta

Durango, Eibar, Zumarraga eta Legazpiko HLHletako ikasleei, eta kontzientzia kritikoa sortu dugu horrela.

**AFRIKAN MURGILTZEN** Hitzarmena. Aurrean, batez ere Afrikari buruzko hezkuntza-materialak prestatu dira Euskadiko arrazakeriaren aurkako kolektiboekin, kontinente horri begirada berri eta positiboa emateko eta haren aniztasuna eta aberastasuna hobeto ezagutzeko, gaur egungo munduaren interdependentziari eta dauden errealitate desberdinen arteko loturari buruzko ikuspegi dekoloniala eskainiz.

 [1] Gender II proiektuari dagokion tailerra, San Adrian BHIIn (Bilbo). [2] Gender Proiektuaren irudia. [3] Afrikan Murgiltzen gida didaktikoaren azala.





# Gizarte inklusioa

Gizarte inklusioaren esparruaren helburua da egoera ahulean dauden pertsonen osasunerako eskubidea izatea. Ildo horretatik, gure lan esparrua bi biztanleria talde hauetan biltzen da: gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden atzeritar jatorriko pertsonak eta drogak erabiltzen dituzten pertsonekin lan egiten duten profesionalak.

**Immigrazioaren eremuan**, Esku Hartze Komunitarioko, Gizarte inklusioko eta Bizikidetzako programen bitartez, hainbat esku hartze esparru lantzen ditugu.

Alde batetik, **HARRERA**ren esparruan, atzeritarrek harrerako gizartean integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntza eta informazio espazioen, laguntzaileen, banakako arretaren eta abarren bidez. Era berean, erantzukizunen titularrekin esku hartzen dugu, atzerriko biztanleekiko jarrerak eta pertzepzioak aldatzeko.

Bigarrenik, **BIZIKIDETZA**ren esparrua lantzen dugu, bertako eta atzerriko herritarren arteko bizikidetzaren errazteko eta sustatzeko, kulturen arteko ezagutzan, ulermenean eta errespetuan oinarrituta, batez ere hezkuntzaren eremuan eta gazteen artean. Halaber, osasun komunitarioa hobetzeko ezagutzak eskuratzea sustatzen eta indartzen dugu, osasunaren mugatzaile sozialak landuz.

Era berean, **GENEROA**ren esparruaren alde egiten dugu, genero berdintasunarekiko eta sexu aniztasunarekiko errespetua sustatzeko. Ildo horretan, pertsona helduekin

zein gazteekin lan egiten dugu, ekitatiboagoa izango den belaunaldi berri bat osatzeko, gizon eta emakumeen talde mistoekin.

Beste lan ildo bat **BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA** da, atzeritar jatorriko biztanleekiko jarrera eta pertzepzio diskriminatzaileak murrizteko helburuarekin. Horretarako, hezkuntzaren arloko prestakuntza jarduerak egingo dira gazteekin; elkar ezagutzeko jarduerak eta gizarte sentsibilizazioak, zurrumurruen eta estereotipoen gaiak hezkuntza eremu formalek eta informalek abiatuta landuz eta erantzukizunen titularrekin lan egiteari utzi gabe.

**PARTAIDETZA**ren esparrua, zeinaren bitartez sustatu eta indartu nahi baita atzeritar jatorriko pertsonen elkarbizitza, bereziki emakumeena, gizarteratze eta inklusio dinamikak sortzeko.

Azkenik, **GIB/HIES**aren prebentzioan lan egiten dugu, prestakuntza tailerren bidez eta proba azkarrak eginez.

Aurten, gainera, **COVID 19** pandemiak eragindako larrialdiaren **ERANTZUNA** landu dugu, erreferentziazko osasun erakundeak izanik osasun sistemara jo ezin duten pertsonentzako arretan, "COVID-19ak



eragindako alarma egoeran etxerik gabeko pertsonen ostatu emateko prestatutako guneen osasun laguntza emateko" dispositiboaren barruan.

**DROGEN** esparruan diharduten profesionalekin lan egiten dugu, kontsumoarekin lotutako

arriskuak eta kalteak murrizteko prestakuntza espazioen bidez.

[1] Kaleko lana San Frantzisko auzoan, Bilbo. 2021eko abendua. [2] Trebetasunen eta Tresnen Tailerra zaintzaileentzat. Immigrazioaren programa.

## EUSKADI

**4.896** ESKU-HARTZE GIZARTE ETA OSASUN ARLOAN (2.317, emakumeekin)

**12** LAGUNTZA OSASUN ZENTROETARA

**80** URRAKETA OSASUNERAKO SARBIDEARI DAGOKIONEZ, jasoak eta salatuak

**1.785** PERTSONA ARTATU DIRA (% 51.8 emakumeak), 62 HERRIALDETAKOAK

**216**

**PRESTAKUNTZA**, hainbat gairi buruzkoak: osasun sistemara sartzea, sexu eta erreproduktzio eskubideak, maskulinitate berriak, kultura aniztasuna, kulturarteko elkarbizitza, osasun fisiko eta psikologikoaren sustapena, eta abar.

**54**

**PROFESIONAL ESPARRU SOZIOSANITARIOAN**, atzeritarren osasun sarbidearen gaian prestatuak



# Nazioarteko lankidetzaz

COVID-19aren pandemiak gordintzan osoz erakutsi digu osasun arazoak ere globalak direla mundu globalizatu batean, eta mundu mailako erantzuna eta erantzun multilateralak eman behar zaiela osasun arazoei.

Euskadiko egoitzako lankidetzaz arloaren helburua da egoitza lurraldearekin lotzea, beste herrialde batzuetan garatutako jarduerak hurbilduz, euskal herritarrek sentsibilizatzeko eta erakundeen aurrean eragin politikoa duen lana egiteko.

Sarean lan egiteko helburuarekin eta eragin politikoa kontuan hartuta, Bilboko Udalaran Lankidetzaz Kontseiluan parte hartu dugu, lan mahai espezifikoeetan, Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehentasun sektorial eta geografikoei eta gainerako administrazio publikoekin.

2021ean, Senegalen, **“Pikine Departamentuko (Senegal) emakumeen eta talde ahulenen osasun estaldura unibertsala sustatzeko”** proiektua ezarri

dugu. Proiektu hori Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak aurretik finantzatzeko esku hartzeen jarraipena da. Zehazki, Dakar eskualdeko talde ahulenen, baztertuenen eta kanporatuena Osasun Eskubidearen Sustapenari buruzko proiektuak; RENAPOC eta KIRAAY tokiko beste alderdien laguntza izan du.


Senegalen ere hasi ginen, Saraya eta Kédougouko osasun barrutietan, **“Generoan oinarritutako indarkeria eta emakumeen genitalen mutilazioa murrizteko proiektuarekin, bai eta horrek emakumeen eta adingabeen osasunean duen eraginarekin ere, Saraya eta Kédougouko (Senegal) osasun barrutietan”** proiektuarekin.

Partzuergoan jarraitu dugu Aldarterekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketarekin, proiektu honetarako: **“Aukeratzeko, izateko eta bizitzeko eskubidea. Dakar eskualdeko (Senegal) kolektibo ahuletako emakumeen giza**

**eskubideak sustatzea eta defendatzea”**. “Populazio giltzarriek” –GIBaren aurrean esposizio handiagoa, osasunerako eskubidearen urraketa, estigmatizazioa eta eguneroko indarkeria– prostituzio egoeran dauden pertsonak, droga injektagarrien erabiltzaileak eta LGTBI taldeko pertsonak biltzen dituzte. Proiektu honen bidez aztertu nahi da egoera horrek emakume ez-heterosexualei nola eragiten dien, eta beren oinarriko eskubideen gauzatze eraginkorra defendatzen da, jasaten dituzten indarkeria espezifikoa murrizteko.

Mexikon ere, Frantziako Munduko Medikuek elkartearekin lankidetzaz, **“Chiapasen (Mexiko) COVID-19 larrialdiaren testuinguruan migratzaileen eta errefuxiatuen osasuna eta babesa hobetzea”** proiektua babestu dugu. Mesoamerikako Eskualdeko Munduko Medikuen Estrategiaren barruan dago proiektua (2017-2021), eta honako lan ardatz estrategiko hauei jarraitzen die: alde batetik, sexu eta ugalketa eskubideak, genero indarkeriaren prebentzioa eta, bestetik, pertsonak, migrazioa eta desplazamendu behartua; eta garapenerako lankidetzaz ekintzak eta laguntza humanitarioko ekintzak artikulatzea aurreikusten du.

Jerusalemgo periferian eta Jerikoko Gobernazioan, Palestinako Lurralde Okupatuetan, **“Zaugarritasun egoeran dauden beduinoei arreta psikosoziala”** emateko proiektua babesten dugu. Okupazio militarren inpaktuak, kolono israeldarren kokaguneen etengabeko hedapenak eta Israelek baliabide naturalen gaineko erabateko kontrolak ez diote eremu horretan bizi diren palestinarren giza garapenari eta garapen ekonomikoari laguntzen; gainera, mugimendu askatasunaren etengabeko murrizketak jasaten dituzte, zonifikatzeko eta planifikatzeko erregimen murriztaileak, lurra konfiskatzen zaizkie, ez dute erakitze baimenik, haien jabetzak eta ondasunak eraisten dituzte eta, oro har, etengabe urratzen da Nazioarteko Zuzenbidea.

 [1] Mobilizazio komunitarioa, Genero Indarkeriari buruzko sentsibilizazioa sortzeko. Senegal. [2] Txertaketa COVID-19aren larrialdian. Senegal. [3] Antzerki-foruma eta sentsibilizazio-solasaldiak, Genero-indarkeria eta EGM gutxitzeko proiektuaren barruan, Senegal. [4] Arreta psikosoziala beduinoen komunitatei. Palestinako Lurralde Okupatuak.





# Erakundeekiko aliantzak eta ekitaldiak

**Krisi honen ondorioz, jende asko hiltzeaz gainera, nabarmen egin du txarrera jende askoren osasun fisiko eta mentalak, arreta medikoa jasotzeko aukerari eragin dio, pertsonen zaugarritasuna areagotu du eta ondorio ekonomiko handiak izan ditu.**

## ENPRESAK EUSKADIN

2021eko azken balantzearen arabera, 58.145 euskal enpresak eman zuten izena Gizarte Segurantzari. Aurreko ekitaldian baino 623 gehiago dira, baina, hala ere, ez dira iritsi pandemia aurreko erregistrora (2020ko otsaila), Euskadin ia 59.000 enpresa baitzeuden. Aurreko abenduan, Euskadik 748 enpresa gutxiago zituen, -% 1,3. 2020ko apirilean markatutako gutxienekoaz geroztik, **galdutako enpresa guztien % 64 berreskuratu da.** (Confebasken datuak)

## PANDEMIAREN ERAGINA ENPRESEN ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOAN

Pandemiak gizarte hausnarketa eztaba daezina eragin du enpresen esparruan. Ziurgabetasuna, balizko ustekabeei eta/edo arriskuei aurrea hartzeko beharra eta giza kapitalaren prestakuntza erronka handiak dira, eta gizarte erantzukizun korporatiboak lehentasunen eskalan gora egin du, iraunkortasunean oinarritutako aberastasuna sortzeko paradigma berri bat ezariz. Lortutako datuek erakusten dutenez, **euskal enpresen erdiak baino gehiagok baieztatzen du ESK indartu egin dela pandemiaren ondoren**, eta zeregin estrategikoa hartu du konpainiaren eta gizartearen etorkizunerako. ("ESK, Dibertsitatea & Inklusioa Euskadin" 2021 | Adecco Fundazioa Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Enplegu Sailaren lankidetzarekin)

## MUNDUKO MEDIKUAK ELKARTEAREN ALIATUAK

Gure inguruko pertsona eta erakunde laguntzaileek ere krisi sanitario eta ekonomiko horri aurre egin behar izan diote 2021ean, eta horren isla izan da aurtur **funts pribatuen ekarpenak % 39 murriztu direla.** Hala eta guztiz ere, enpresen dohaintzen % 71 berriro dira; hala, beren konpromiso solidarioari esker, Munduko Medikuek erakundearen proiektuei eusten lagundu dute, bai Euskadin, bai nazioarteko lankidetzako beste proiektu batzuetan.

Aurtur ere **ezin izan dugu ekitaldi presentzialetan ia parterik hartu**, gure boluntarioen osasuna arriskuan ez jartzeko; baina beste lankidetzako eremu batzuk indartu dira, hala nola **produktua edo zerbitzua ematea.** Aukera horiei esker, erakundearen gastuetan aurreztu ahal izango dugu, eta jarduera presentzialetara itzuli ahal izan gara, babesteko behar diren material eta bermeekin.


Oso baliotsuak izan dira, zalantzarik gabe, pandemia hasi zenetik **Munduko Medikuen eraldaketa digitalaren prozesua bultzatzen lagundu diguten aliantzak:** laguntza ekonomikoak eta prestakuntzarako ekimenak, zeinei esker sendotu baititugu kolektibo zaugarriekin ditugun esku hartzeko taldeak eta ezagutzak, ingurune birtualetako tailerrak eta jarduerak, interes taldeekin komunikatzeko bideak, sareko lana eta herritarrak osasunerako duten eskubideekiko sentsibilizazioa.

Funtsezko beste lankidetzako bat elkarteak Euskadin egindako lana dela-eta

gizarteak oro har eta bereziki enpresek beren informazio komunikabideetan eta beste erakunde batzuen kanpainen eta komunikabideen bidez egindako **zabalkundea eta aitortpena** izan da.

**Sareko lanak** behera egin du, ezin izan delako aurrez aurreko ekitaldi edo jardunaldietara joan, baina entitateekiko lankidetzako harremanari eutsi zaio Garapen Jasangarriko Helburuen eta Gizarte Eraldaketaren alde lan egiteko, hala nola Bolunta (Topaketa: enpresen eta gizarte

erakundearen arteko aliantzak), BBK Kuna plataforma eta Fair Saturday, esaterako.

 [1] Fernando Ureta Munduko Medikuek elkarteari lotutako "Euskarria" lanaren alboan. Arcos de Quejana Jatetxe Hoteleko Ametsen Hariztian, 2021. urtean inauguratua. [2] Munduko Medikuek elkartearen eraldaketa digitalaren prozesuari laguntzea. [3] "Un Bollo por la Salud" kanpainaren kartela, Kurruska okindegi eta gozotegietan. [4] "Un partido, una causa" kanpaina, Bilbao Basket Fundazioak Boluntarekin lankidetzan bultzatua, Bizkaiko gizarte ehunaren lana ikusarazteko.



[1]



[2]



[3]



[4]

# Komunikazioa eta Eragin Politikoa

2021. urtea funtsezkoa izan da, Munduko Medikuen komunikazioari eta eragin politikoari dagokion estrategian eta eraldaketa digitaleko prozesuan lanean jarraitzeko.

Osasunerako eskubideari buruzko aldarrikapen kanpainak, lehenatasunekoak izan dira partekatutako edukien artean, pandemiari lotutako kanpainak batez ere: txertoak eskuratzea edo lehen mailako arretaren garrantzia eta baliabiderik eza; baina, horrez gainera, salatu ditugu hegoaldeko mugako eta Palestinako egoera, Siriako 10 urteak, Kongoko hilketak, larrialdi klimatikoa eta pobrezia energetikoa, besteak beste.

Munduko Medikuek erakundeak antolatutako **jardueren zabalkunde**a egin dugu: pertsona zaurgarrientzat, eremu soziosanitarioko elkarte edo profesionaltzat antolatutako jarduerak; erakundearen funtsezkoak diren **oroitzapenezko egunak** direla-eta egindako ekintzak, hala nola Hiesaren Munduko Eguna, Sexu Osasunarena, Emakumezkoen Mutilazio Genitalaren Prebentzioarena edo Sexu Aniztasunarena; **Jardunaldietan izandako partaidetza edo** Euskadin osasunaren alorrean erreferente gisa **agertzea komunikabideetan**, eta Euskadiko Munduko Medikuen lana eta jende guztiak Osasunerako duen Eskubidea babesteko **kanpainak, lankidetzak edo ekimen solidarioak**.


Aurten, berrikuntza gisa, **¿Qué hacemos? Zer egiten dugu?** ekimena diseinatu eta gauzatu da, sare sozialetako jarraitzaileei ezagutzera emateko zein arlotan lan egiten dugun eta zer programa egiten ditugun.

Interes berezia izan du **Arazakeriaren Aurkako Eskolaren II. Edizioak**, eta arrakasta handia izan du Instagramen zuzenean emandako 10 saioen deialdian, hedapenean eta partaidetzan, gai honetan erreferentziatzko gonbidatuak izan baititu.

Interes taldeekiko komunikazioa hobetzeko helburuarekin, indartu egin dira **sare sozialetako** argitalpenak eta hobetu egin dira aldizkako barne komunikazioak datu base sozialarentzat, eta kanpoko komunikazioak baliabide, elkarte eta erakundeentzat.

Boluntarioen lana ikusarazteko eta eskertzeko, eta beste pertsona batzuk Munduko Medikuek ekimenean parte hartzera animatzeko, **Historias de Voluntariado** partaidetza kanpaina jarri da abian 2021ean: erakunde kideei esperientzia partekatzeke deia egin zaie.

**Ikusi "Historias de Voluntariado".**

 [1] Apirilean "Osasunaren Nazioarteko Eguna" dela-eta bidalitako prentsa oharra. [2] Arazismoaren Kontrako Eskola Birtualaren II. Edizioa. [3] "Historias de Voluntariado" kanpaina. [4] "Aliad@s Konectad@s" erakunde laguntzaileei bidalitako hiru hilabeteko emailinga.



## Diskurtsoek ez dituzte bizitzak salbatzen, baliabideek bai.

Osasunaren Mundu Eguna dela eta, Munduko Medikuek elkarteak premiazko hobekuntzak eskatzen ditu lehen mailako arretarako, herritarren osasun-premia gehienei erantzuten baitie.



[1]

**II ESCUELA ANTIRACISTA VIRTUAL**

**DINAMIZA: MARRA NGOM**

**7, 14 MAYO**  
**4, 11 JUNIO**  
**2, 9, 16, 30 JULIO**  
**6, 13 AGOSTO**

**MUNDUKO MEDIKUAK**  
**@MDM.EUSKADI**

**VIERNES 18:00**

[2]

**Historias de Voluntariado**

*Y tú, ¿quieres formar parte de esta historia?*

[3]

**MUNDUKO MEDIKUAK**

**ALIAD@S KONECTAD@S**

Por la salud en Euskadi

[4]



# Gure kontuak 2021ean


## MUNDUKO MEDIKUAK EUSKADI

Munduko Medikuak elkartearen jarduera osoa irizpide zorrotzekin ikuskatzen du GGKEak, eta misioa eta helburuak betetzen diren eta funtsen iturriak eta erabilera aztertzen ditu. Lealtad Fundazioan


egindako jarduerak eta finantzaketa ere ikuskatzen da. Horrez gainera, erakunde pribatuek zein publikoek -eta gure balioek- kontuak gardentasun handienarekin ematea eskatzen digute.



### 2021EKO EMAITZA



### NON EGITEN DUGUN LAN



Solidaritatea partekatuko dugu?  
¿Compartimos solidaridad?





# Eskerrik asko! ¡Gracias!



## ERAKUNDE PUBLIKOAK

Barakaldoko Udala ■ Beste BI Plataforma ■ Bilboko Udala ■ Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako Taldeen Koordinakundea ■ Bizkaiko Foru Aldundia ■ Bizkaiko Gurutze Gorria ■ Bolunta (Boluntariotzarako eta gizarte partaidetzarako agentzia) ■ Durangoko HHI ■ Eibarko HHI ■ Emakunde – Emakumearen Euskal Institutua Osasun Forua eta Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritza ■ Emakunderen Sexu esplotaziorako helburuekin pertsonak salerostean kontrako Mahaia ■ Eraldatzen Forua BHI San Adrian ■ Euskadiko GGKE-en Koordinakundea ■ Eusko Jaurlaritzaren Enplegua eta Gizarte Politikak Saila ■ Eusko Jaurlaritzaren Hiesaren Plana ■ Eusko Jaurlaritzaren Iragaitzako Pertsonen Erakundearteko Mahaia ■ Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Euskal Agentzia ■ Eusko Jaurlaritzaren MigraCovid Sarea ■ Eusko Jaurlaritzaren

Osasun eta Immigrazio Foroa ■ Gurutzetako Ospitalea ■ Harresiak Apurtuz (Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKEen koordinatzailea) ■ Legazpiko HHI ■ Lemoako Udala ■ Osasunaren aldeko Euskal Foroa ■ Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren kontrako Borrokarako Europar Sarea Euskadin (EAPN Euskadi) ■ San Frantzisko auzoan elkar laguntzeko auzo mugimenduak ■ Sunu Gaal Elkarte ■ Zumarragako HHI

## ERAKUNDE PRIBATUAK

Aero-Ferr ■ Arcos de Quejana ■ Athletic Club Fundazioa ■ Banaketa Solidarioa Fundazioa ■ Basa Lore ■ Cadvision ■ Cafés Baqué ■ Danobat Group ■ Erreka ■ Gorka Nalda ■ Inpesca ■ Irizar ■ Kaiku ■ Krean ■ La Caixa Fundazioa ■ Maier ■ Mikel Uriarte Fundazioa ■ Orona ■ Plastigaur ■ Real Sociedad Fundazioa ■ Repaspán ■ Salto Systems ■ Santander Ayuda Fundazioa ■ Sareteknika ■ Sibol ■ Susana Monsma Fundazioa ■ Ulma Fundazioa

# Nola lagundu Munduko Medikiak elkarteari

Munduko Medikiak pertsona guztiak osasunerako duten eskubidearen alde lan egiten duen elkarte da. 1995az geroztik du Euskadin ordezkaritza, eta gizarteratzearen, sentsibilizazioaren, eraldaketa sozialerako hezkuntzaren eta eragin politikoaren arloetan lan egiten du. Zure laguntzak bizitzak alda ditzake. Munduko Medikiak elkarteari lagunduz gero, pertsona ahulenei, baztertuei edo hondamendi naturalen, goseteen, gaixotasunen, gatazka armatuen edo indarkeria politikoaren biktimei osasunerako sarbidea hobetzen lagunduko duzu.

## ZURE DENBORAREKIN: EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO!

Munduko Medikiak boluntario elkarte bat da, ekintzarako eta partaidetzarako gunea, eta bertatik bertara lagundu dezakezu errealitate bidegabea aldatzen. Boluntarioek osasun sistema publikorako sarbideetik baztertuta edo egoera zaugarriarri dauden pertsonen eskubideak defendatzeko jarduten dute eta mobilizatzen dira. Izaera solidarioa baduzu eta mundu zuzenago baten alde borrokatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan gure egoitzan. Zure zain gaude!

## DIRUAREKIN

Bat egin Munduko Medikiak erakundearekin, modu egonkorrean edo puntualean lagunduz. Hainbat erataria lagun diezagukezu: izendun txeki bat egoitzara posta bidez bidalita, banku transferentzia bat eginez gure kontura, Bizum bidezko ordainketa batekin, informazioa emateko mezu elektronikoa bat bidaliz. Deitu eta hitz egingo dugu!

## GURE PROIEKTUAK BABESTUZ ETA ZABALDUZ

Gure lana ezagutu eta gure kanpainak zure kontaktuen artean zabaldu ditzazun gonbidatzen zaitugu. Zatoz Munduko Medikiak erakundera, bisitatu Munduko Medikiak erakundearen webgunea eta gure sare sozialak. Jarrai gaitzazu Facebook, YouTube eta Instagramen; parte hartu, partekatu edukia eta bidali iruzkinak edo iradokizunak.



[facebook.com/mundukomedikuak](https://facebook.com/mundukomedikuak)  
[instagram.com/mdm.euskadi](https://instagram.com/mdm.euskadi)



## KUTXABANK

ES15 2095 0368 8091 0040 4807



## BIZUM

00559 MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI



*Gaixotasun guztiei egiten diegu aurre, injustiziari berari ere  
Combatimos todas las enfermedades, incluida la injusticia*



## Munduko Medikiak Euskadi

### MUNDUKO MEDIKUAK BILBAO

Bailén 1, behea. 48003 Bilbao  
944 790 322  
euskadi@medicosdelmundo.org

### MUNDUKO MEDIKUAK ARABA

Kubo 1. 01001 Vitoria-Gasteiz  
653 994 567  
araba@medicosdelmundo.org



[www.medicosdelmundo.org](http://www.medicosdelmundo.org)